



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

KONTSEILUA



Egun on eta mila esker ona bildu zareten guztioi.

20216an abiatu genuen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua eta, geltokiz geltoki, eskualdea eta euskara josiz joan gara, gaur, hona, Artziniegara heldu arte. Amurrion aterkipean hasitako bidea oparoa izan da, baina gehiago nahi dugu, asko baitugu irabazteko. Euskaldunok gure izateaz, hemen, gure etxean, gure herrian, gozatu nahi baitugu, arrotz sentitu barik.

Artziniegan gara gaur, artea hitzak inon baino esanahi gehiago biltzen duen herrian. Zuhaitza, eskultura, historia... artea. Horregatik erronka eskualdeko ikasleei: lotu euskara eta artea, sortu zuen Euskararen Artea. Deialdi honi erantzunez gaur hemen, ikusgai ditugu Arteko Gure Ama eskolako, Aresketa Ikastolako, Okondo eskolako eta Aresketako Ikasleek egindako arte-lanak. Txalo bero bat beraientzat.

Euskararen eguna gaur ospatzen dugu. Baina aurten ere, beroketa izan dugu, Memealdia ospatu baitugu, bigarren edizioa. Eta pozarren esan dezakegu, gure gazte eta nerabeek, 100dik gora meme sortu eta bidali dizkigutela. Bejondeizuela. Txalo bero bat zuentzako.

Urte betea joan da euskalgintzan, bai Euskal Herrian eta baita Aiaraldean ere. Oldarraldi judizialari indartsu erantzun diogu eta gurean *errotulki gorria* atera dugu. Hauteskundeetan euskara mahai gainean jarri dugu eskaintza aztertuz, konpromisoak eskatuz eta lortuz. Futbola euskalduntzeko kanpainan darraigu, gazteen ahotsa entzuten, gurasoei transmisioaren garrantzia gogoratuz, ikastetxeekin elkarlanean... Hamaika proiektu eta ekimen, eta etorriko direnak!, euskararen alorra borbor den honetan: hizkuntza ereduak, pantailetan euskara, ikasleen euskara maila, hizkuntza eskubideak...

Bidean inportanteak dira bidelagunak eta gaur ere hala gatoz lagunduta. Mila esker gaurko ospakizunean lanean zareten bolondresei eta sukaldariei, Ganzorrotz Mendi Taldea, Artzikirola Elkartea, Bizindar Sokatira Taldea, Builaka Batukada, Sorginlarren, Kirikiño, Otsati Elkartea, Arteko Gure Ama, Okondo eskola, Aresketa eta Audio ikastola eta Artziniegako Udalari.

Urtean lanean, gure eskubideen defentzan eta gure hizkuntza aldarrikatuz eman ostean, gaur, abenduaren 3a, tokatzen dena gozatzea da. Elkartu, batu, komunitatea egin eta euskaraz gozatu!

Orain denok abestu eta dantzara!

Gozatu egunaz!

Gozatu euskaraz!

Aiaraldea Euskaraktibatu!

Artziniegan, 2023ko abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Egunean